



“Donostiako metro koadroaren prezioak lotsa ematen dit”

Odon Elorza

Tabakalerari buruzko hitz ederrak eskaini zizkigun eta egun gutxira lehertu zen albistea.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Bere garaian Patxi Lopezek botere aldaketa sanoa zela zioen, baina zuk hemeretzi urte daramatzazu!

Hemen banago zintzoa izan naizelako eta hiritarrek bozkatu nautelako da. Pentsa, hain nago nire lanaz maiteminduta hiriarekin batera hazi eta heldu naizela.

Zure alderdiarekin ados ez zaudenean ozen adieraztea da zintzotasuna?

Zer defendatu behar dut lehenik, nire alderdiaren nahia ala nire hiriaren interesa? Alderdiko buruzagiek ez dute agian hala usteko, baina ezkerreko alderdi batek ez du irekia izan behar?

Zu bai irekia, PPTik Aralarrera doazen alderdi guztiekin paktatzeko...

Hiriak egonkortasuna eta gobernagarritasuna behar ditu. Bere garaian EAJk paktatu nahi izan ez zuelako itxi nuen tratua PPrekin, baita legegintzaldia bukatu aurretik gobernutik kanporatu ere. Beti saiatu naiz gobernu aurrerakoiak egiten hiri honen hautesleria fragmentatua ahal bezainbat integratuz.

Inozoa ni, PP-PSE gobernu itunaren aitzindari-tzat zintudan.

Euskadirentzat PSEk eta EAJk osatutako Jaur-larritza litzateke desiragarri eta egokiena, baina zirkunstantziek eta alde bien borondate politikoez ez zuten posible egin. PPren babesa onartu zuenak gure estrategia eta politikak zenbat baldintzatzen zituen pentsatu zuela espero dut.

Ez zara kexatuko, Donostian metroa egingo dizute!

Bilbo metroa garatu eta garatu ari bada euskal

herriar guztion diruarekin, zergatik eskandalizatzen da jendea Donostian topoa berri eta metro bihurtu nahi dugula entzutean?

Donostiako metro koadroa estatuko garestietakoa delako, agian?

Donostiako metro koadroaren prezioak lotsa ematen dit. Babes ofizialeko etxeak bultzatu eta bultzatu ari gara, baina arazoa objektiboa da eta ez dauka konponbide errazik.

Errauskailua Zubietan egiteko ordea, arazorik ez, ezta?

Gipuzkoako udalerrri gehienek babesarekin Foru Aldundiak hartutako erabakia da. Bere garaian gogor borrokatu genuen bai errauskailuaren, bai errauskailuaren kokapenaren aurka, baina...

2016ko Kulturaren Hiriburu izendatzen ez bazaitzete Errauskailuen Hiriburu izateko hautagaitza aurkeztu dezakezue.

Kontsumo pasiborako izan beharrean, kultura parte-hartzaile eta sortzailea bultzatu nahi dugu. Artistek izan dezatela hitza euren arloko politikak diseinatzekoan.

Noiztik behar da titulu bat hori egiteko?!

Ez da behar baina tituluak abantailak baizik ez ditu. Hala ere, garbi gera dadila, hautatuak izan ala ez, gure kultur politika eraldatuko dugu!

Garbi ez dagoena da alkate izaten jubilatuko zaren...

Ez esan berriz hautatuko nauten beldurrez nik nire kabuz alde egiteko desiratzen dauden horietakoa zarela! ■